



HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN AGINDUAK, DERRIGORREZKO HEZKUNTZAKO ETA DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDOKO CURRÍCULUM EGOKITZAPEN ETA SALBUESPENEI BURUZKOAK

1.- SARRERA

2/2006 Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren (HLO), maiatzaren 3koaren, bere II. tituluak, hezkuntzan ekitateari buruzkoak, **hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei** zuzendutako I. kapitulua hartzen du barne. Bertan ezartzen da hezkuntza-administrazioek ikasle guztiek ahalik eta garapen pertsonal, intelektual, sozial eta emozional handiena lortzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriko dituztela (71.1 artikulua). Euskadiko Autonomia Erkidegoa helburu hori duten arau eta jarduera sorta zabala garatzen joan da.

HLOren 71.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, hezkuntza-administrazioei dagokie hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleek ahalik eta garapen pertsonal handiena lortzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzea, eta bost talde identifikatzen ditu:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.
- Ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleak.
- Adimen-gaitasun handiko ikasleak.
- Hezkuntza-sisteman berandu sartu eta hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.
- Egoera pertsonala edo eskolako historialaren ondorioz hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.

Ondoren, 175/2007 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duenak, Aniztasunaren Trataerari zuzendutako IV. kapituluan ezartzen duenaren arabera, aniztasunaren trataerarako neurriek xede hauek dituzte: ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzutea eta ikasleek curriculumean jasotako oinarrizko gaitasunen gutxieneko mailak eskuratzea. Neurri horiek bide bat ireki behar dute, adierazitako helburuak eta xedeko titulazioak lor ditzaten ikasleek (24. artikulua). Horrez gain, neurri horiek erantzun egin behar diete ikasleen hezkuntza-premiei, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten. Neurri horien artean aipatzen dira:

- Ikasle-talde arruntean laguntza ematea.
- Talde-banaketak.
- Aukerako irakasgaien eskaintza.
- Indartze-neurriak.
- Curriculumaren egokitzapenak.
- Irakasgaiak jakintza-arlotan jasotzea, ikasle-taldeetako irakasleen kopuruak murrizteko.



- Eskolatzeko osagarriko programak.
- Hezkuntzako esku-hartze orokorreko eta espezifikoko proiektuak.
- Curriculum anitzeko programak.
- Hezkuntza-laguntza espezifikoa behar duten ikasleen tratamendu banakatua egiteko programak.
- Unitate bakoitzeko irakasleen ratioak handitzea.

Artikulu berean gehitzen denaren arabera, curriculumeko helburuak lortzea errazteko, berariazko prozedurak ezarriko dira, baldin eta beharrezkoa ikusten bada jarduera-plan berezi bat egitea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen premiei erantzuteko. Plan horrek curriculum-egokitzapenak egin ditzake, curriculumaren edukietatik eta ebaluazio-irizpideetatik aldenduz. Ikaslearekiko jarduera-planean adierazitako curriculum-egokitzapenen helburua hau da: oinarrizko gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ikasle horiengan. Curriculum-egokitzapen horietan finkatutako ebaluazio-irizpideak izango dira ikasleen ebaluazioa eta mailaz igarotzea erabakitzekeko erreferentziak.

2.- PRINTZIPIO OROKORRAK

- Curriculum-egokitzapenen helburua da ezgaitasun eta jokabide-arazo larrien ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eta bestelako hezkuntza-laguntzaren berariazko premiarik duten ikasleei behar bezalako hezkuntza-erantzuna ematea. Helburua curriculum-egokitzea da, ikasleen premiei erantzuteko eta horiek eskolatuta dauden taldearen testuinguruaren baitan. Beraz, curriculum-egokitzapen baten garapenak ikasle-talde arruntak, eskola inklusiboaren baitan, eskaintzen dituen aukerez baliatzea esan nahi du.
- Curriculum-egokitzapenak honako kasuetan baino ez dira aplikatuko: zikloaren curriculum-egokitzapenerako ohiko neurriak nahikoak ez direnean, alor edo irakasgaiaren programazioa, hezkuntza-indartzea, urte bat baino gehiago egotea ziklo edo ikasturte berean, etab.
- Curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak ezingo dira erabili eskolako mailaren erritmoa jarraitu ezin duten ikasleentzako hezkuntza-indartze programaren euskarri gisa; ezgaitasun edo antzerako egoerei lotutako hezkuntza-premia bereziekin loturarik ez duten baldintza pertsonalen kasuan. Ezingo dira horiek erabili, ezta ere, ikastetxeak aparteko baliabide pertsonalak lortzeko.
- Haur Hezkuntzako ikasleak etengabe ari dira hazten eta prozesu horretan ohikoa da erritmo ezberdinak ikustea heldutze eta ikaste-prozesuen adierazpen natural gisa. Beharrezkoa den kasuan, lan-plangintza pertsonalizatua egin daiteke beharrezkotzat jotzen den esperientzia-alorretan. Curriculumaren norbanako egokitzapenak egitea ez-ohiko neurria denez, fase horretan honako kasuetan baino ez dira izapideak egingo: a) derrigorrezko eskolatzearen hasiera atzeratzeko eskatzea (beharrezkotzat jotzen diren esperientzia-alorretan lan-plangintza pertsonalizatua hartuko du barne) eta b) eskolatzeko epea aurreratzeko eskaera.
- Curriculumaren norbanako egokitzapena baimentzeko prozesuak zentzua izango du, ikaslearen egoera pertsonala kontuan hartuta, hezkuntza-administrazioak ikasle horrentzako curriculum ofiziala norbanako egokitzapenarena dela onartzen duenean (helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak, etab.), eta curriculum horrek ezarriko du



ikasle horren hezkuntza-jarduera eta jarduera akademikoa. Hori horrela izan ezean, ez da justifikatuta egongo araudian ezarritako prozedura konplexua.

- Curriculumaren norbanako egokitzapenetan, curriculum-erreferentea funtsezko elementua da, lortu beharreko curriculum-gaitasuna ezartzen baitu. Horrez gain, hori da ikaslearen curriculum osoa antolatu eta eratzeko erreferentzia.
- Aurreko puntua kontuan hartuta, gai konplexua dela ulertu behar da, eta berau aplikatzea ez dela automatikoa. Alde batetik, ez da bera DBHko ikasle batek irakasgai batean Lehen Hezkuntzako lehen zikloko curriculum-erreferentea izatea edo curriculum-erreferente hori hirugarren ziklokoa edo DBHko lehen edo bigarren ikasturtekoa izatea. Beste aldetik, curriculum-erreferenteak ez du zertan bera izan behar curriculumaren norbanako egokitzapenen alorren helburu eta eduki guztietan. Hori dela eta, mailaz igarotzean eta titulazioetan beharrezkoa da ikasle bakoitzaren egoera modu pertsonalizatuan aztertzea.
- Irizpideak era "ez automatikoa" aplikatzeak ikaslea bere osotasunean aintzat hartzea esan nahi du, bere ibilbidea eta etorkizunerako arrazoizko itxaropenak kontuan izatea, alegia. Ezgaitasun zehatzak (gorreriarekin edo garun-paralisiarekin lotutakoak, esaterako) edo bestelako hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak izan eta garapen kognitiboan arazorik ez duten ikasleen kasuan, eskolatuta dauden ziklo edo ikasturteko curriculum arrunta jarraituko dute. Hala ere, alor edo irakasgai batean curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak eska daitezke, dimentsio batzuk, lengoaiaren ahozkoa edo idatzia kasu, kaltetuta badaude. Hori dela eta, ezinbestekoa da pertsonaren balorazio osoa egitea, ikaslearen aurrerapenak eta arrazoizko itxaropen akademikoak kontuan izatea eta irakasleek eta HPBen aholkulariek balioestea.

3.- HEZKUNTZA LAGUNTZAREN BERARIAZKO PREMIAREN KONTZEPTUA ETA EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duen ikasletzat hartuko da eskolatzeko aldi batean edo eskolatzeko osoan arruntak ez diren hezkuntza-arreta zehatzak eskatzen dituenak. EAEko hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

3.1.- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak

Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik eskolatzeko aldi batean edo eskolatzeko osoan berariazko hezkuntza-laguntzak edo hezkuntza-arretak behar dituztenak dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak. (HLO, 73. artikulua). Hau da, honako ezgaitasun edo jokabideei lotutakoak:

- Ezgaitasun anizkoitza
- Adimen Minusbaliotasuna
- Garapenean nahaste orokorra
- Entzuteko ezgaitasuna
- Ikusteko ezgaitasuna
- Mugitzeko urritasuna
- Jokabide-arazo larriak

3.2.- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak

“Ikasteko aparteko zailtasunak” (IAZ) dituzten ikasleek nahasmendua dute entzumen-, mintzamen-, irakurmen-, idazmen-, arrazoimen- edo matematika-trebetasunak eskuratu eta erabiltzeko beharrezkoa den **oinarrizko prozesu psikologiko** batean edo gehiagotan. Batez ere honako hauetan:

- Irakurtzen ikasteko aparteko zailtasunak.
- Idazten ikasteko aparteko zailtasunak.
- Kalkuluak egiten ikasteko aparteko zailtasunak.
- Mintzairaren aparteko nahasteari lotutako ikasteko aparteko zailtasunak.

Ikasteko zailtasunak aurkez ditzakete, baita ere, “arreta-faltaren ondoriozko nahastea (hiperaktibitatearekin ala gabe)” duten ikasleek; hau da, etengabeko arreta-falta edo hiperaktibitate eta oldarkortasun-jokabideak eduki eta eskola-jardueretan eta harremanetan parte hartzean negatiboki eragiten duten ikasleak.

3.3.- Adimen-gaitasun handiko ikasleak

“Adimen-gaitasun handia” duten ikasleak dira hainbat baliabide kognitibo aldi berean erabili eta lotzen dituztenak. Baliabide horiek logika, zenbaki, espazio, oroimen, mintzaira eta sormen motakoak izan daitezke. Aldi berean erabili ez, baina horietako batean edo hainbatetan bereziki nabarmentzen den ikasleak ere “adimen-gaitasun handia” duela esan ohi da.

Adimen Gaitasun Handiak terminoa erabiltzen da talde honen honako ezaugarriak dituztenean:

- Supergaitasuna
- Talentu soila/anizkoitza
- Goiztiartasuna

3.4.- Hezkuntza-sisteman berandu sartu eta hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.

“Hezkuntza-sisteman berandu sartu” eta hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak dira, beste herrialde batekoa izateagatik edo bestelako arrazoiengatik, berandu eskolatzen direnak eta beren ikaskideekin alderatuta oinarrizko helburu eta gaitasunak bereganatzeko zailtasunak dituztenak.

Hezkuntza-sisteman ohi baino beranduago sartu diren ikasleen eskolatzeari bermatu behar dugu. Lehenik eta behin, ikaslearen egoera, ezagutzak, adina eta ibilbide akademikoa aztertu behar ditugu. Ondoren, haren ezaugarriari eta aurretiko ezagutzei hobekien egokitzen zaien mailan sartuko dugu, eta beharrezko laguntza eman, hezkuntzari probetxua ateratzea.

3.5.- Egoera pertsonala edo eskolako historialaren ondorioz hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.

Ikasle batek egoera pertsonala edo eskolako historialaren ondorioz hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituela esaten da hezkuntza-laguntza edo arretak honako alderdi hauei lotutakoak direnean:

- Sektore sozial edo kultural ahul batekoa izatea.
- Hizkuntza-gaitasunean mugak izatea.
- Osasun-arazoak izatea.
- Ingurunera moldatzeko arazoak izan edota gatazka errepikatuak gertatzea.

4.- CURRICULUM EGOKITZAPENAK

2/2006 Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, eta 175/2007 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen duenak, ezartzen dutenaren arabera, curriculumaren hainbat elementu egokitu daitezke, ikasleek beren eskolatze-aldian zehar aurkezten dituzten beharrezkoak izatearen arabera, eta horiek bakoitzari dagokion Jarduteko planean definituko dira.

1998ko uztailaren 24ko Agindua, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura (EHAA 98/08/31) da alor hori EAEn arautzen duena. Aginduak ezartzen duenaren arabera, curriculumean sartzeko egokitzapenak izango dira curriculumera sartzeko elementuak egokitzen direnean eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak izango dira arlo, gai edo modulu bakarrean zein hainbatetan, baita ziklo edo etapa osoan ere, curriculumaren derrigorrezko elementuak egokitzen direnean (2. artikulua).

Curriculumaren norbanako egokitzapena nabaria izango da "curriculumaren derrigorrezko elementuetan aldaketa garrantzitsuak sartu eta arloko, zikloko edo etapako helburuen zati garrantzitsu bat egokitzen edo deuseztatzen denean" (8.1 artikulua).

Lehen Hezkuntzan, curriculumaren norbanako egokitzapen nabariaren curriculum-erreferentea ikaslea eskolatu aurreko zikloa edo etapa izango da. DBHn curriculum-erreferentea aurreko etapa edo, alorreko curriculumaren norbanako egokitzapenaren kasu batzuetan, etapa bera izango da.

Jarraian deskribatzen diren curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak egin ahalko dira:

4.1. Curriculumaren Norbanako Egokitzapen Nabari Globala

Curriculumaren norbanako egokitzapen nabari globalak dira curriculum-arloetan oinarrizko eta funtsezkotzat jotzen diren helburu eta eduki orokorrak deuseztatzen dituztenak eta horren ondorioz funtsean aldatzen direnean helburu orokorrak eta ebaluatzeko irizpideak (9.1 artikulua).

Curriculum-egokitzapen nabari globala adimen-minusbaliotasuna, garapenaren nahaste orokorra edo ezgaitasun anizkoitzarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat baino ez da egingo, eta hala dagokion kasuetan. Horretarako, curriculum-alde nabaria egon behar da curriculumaren hiru arlo edo irakasgairan artean, horien curriculum-gaitasunaren mailaren eta ikaslea eskolatutako dagoen ikasturtearen artean. Hiru arlo baino ez diren kasuetan, arlo horiek hizkuntza-alarrekoekin bat egiten dutenean eta ezgaitasuna hizkuntza-alarrean adierazten denean (gorreria, dislexia, etab.), alorreko curriculumaren norbanako egokitzapena izango da eta ez globala.

Curriculum-aldea ziklo batekoa edo gehiagokoa izango da Lehen Hezkuntzan edo etapa horri egingo dio erreferentzia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Curriculumaren norbanako egokitzapen globala Oinarrizko Hezkuntzan baino ezin da aplikatu eta ez du titulazioa jasotzeko ahalmena emango.

4.2. Arloko edo Irakasgaiko Curriculumaren Norbanako Egokitzapen Nabaria

Arloko edo irakasgaiko curriculumaren norbanako egokitzapen nabaria izango da alor edo irakasgai jakin batzuen helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideak aldatu edo ordezkatzeko direnean. Hala ere, etaparen helburuak mantenduko dira eta **ikasleek etapa amaitzean titulazioa eskuratzea izango du helburu** (9.2 artikulua).

- Curriculum ziklora egokitzeko, arloko edo irakasgaiko programazioa, hezkuntza-indartzea eta bestelako ohiko neurriak nahikoak ez direnean diseinatu eta aplikatuko dira, edo aurretik aplikatutako hezkuntza-arretarako neurriak nahikoak izan ez direnean.
- Arau orokor gisa, ikasgelako taldearen barnean aplikatuko dira.
- Ikusteko, entzuteko edo mugitzeko ezgaitasuna izan, edo ikasteko zailtasunak izan, eta hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleentzat egingo dira, hala badagokie.

Arloko edo irakasgaiko curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak titulazioa lortzeko aukera ematen du, berau lortzeko baldintza orokorrak betetzen badira, hau da, **dagokion etapa edo mailaren helburuak mantentzen badira. Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan curriculumaren norbanako egokitzapen nabariak ezingo du, inola ere, titulua eskuratzeko gaitasun orokorrak lortzeko oinarrizko gaitasun profesionalekin lotutako helburuak desagertzea eragingo.**

Arloko edo irakasgaiko curriculumaren norbanako egokitzapen horien helburua lortze aldera, hau da, ikasleek curriculumean ezarritako gaitasun orokorrak eskuratzeko aldera, eta 118/1998 Dekretuaren 8.4 artikulua ezarritakoa jarraiki, **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3 eta 4. ikasturteetan irakasgaiko curriculum-egokitzapenak egin ahaliko dira etapa beraren baitako bi ikasturte edo gehiagoko curriculum-aldean.** Egokitzapen horien izapideak 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 10. artikulua eta ondorengoek ezarritakoaren arabera egingo dira eta xedapen horretan ezarritako ondorioak izango dituzte.

4.3. Curriculumera sartzeko egokitzapenak

Curriculumera sartzeko elementuei eragiten die. Honako hauek dira curriculumera sartzeko elementuak:

- Ez-ohiko baliabide pertsonalak (EHIn espezializatutako irakasleak edo logopedak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, zeinu-mintzairako irakasleak, ikusteko ezgaitasunean espezializatutako profesionalak, etab.).
- Espazio eta alderdi fisikoetara egokitzea.
- Ekipamendua, material didaktikoa eta baldintzak egokitzea.
- Denbora egokitzea.
- Curriculumean derrigorrezkoak ez diren elementuak egokitzea: metodologia, jarduerak, ebaluazioa, etab.

Kontuan izan behar da kasu askotan neurri horiek nahastuta hartzen direla, aurkez daitezkeen beharizan ezberdinen konplexutasunari erantzuna emateko.

4.4. Gela egonkorrak

Gela egonkorrean eskolatutako ikasle bakoitzak Banakako Lan Plangintza edukiko du. Berau egiteko erreferentzia Ikasgelako Curriculum Proiektua izango da. Berariazko curriculum funtzionala da eta alorka edo trebetasun moldatzaileen arabera garatu ahalko da. Gela egonkorrean eta Banakako Lan Plangintzarekin eskolatutako ikasleak ez du erreferentziatzat Haur Hezkuntzaren etapa, ezta Lehen Hezkuntza edo DBHko ikasturteak ere, eta, beraz, erreferentziarako dokumentazio akademikoa Lan Plangintza baino ez da izango.

Gela Egonkorraren Curriculum Proiektua Hezkuntza Berrikuntzarako lurralde-arduradunak onartuko du, hezkuntza-premia berezietarako aholkularien eta Hezkuntza Ikuskapenaren aurretiko txostenaren ondoren.

Era berean, Zereginen Ikaskuntzarako Gelan eskolatutako ikasleek Banakako Lan Plangintza edukiko dute.

5.- HEZKUNTZA LAGUNTZAREN BERARIAZKO PREMIA DUTEN IKASLEEN EBALUAZIOA, MAILAZ IGAROTZEA ETA TITULAZIOA DERRIGORREZKO HEZKUNTZAN

5.1. Ebaluazioa

Curriculum-egokitzapen nabariak dituzten ikasleen ebaluazioa banakakoa, etengabea eta hezigarria izango da, unibertsiteaz kanpoko hezkuntza-sistemako etapa bakoitzean ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa arautzen duten aginduek orokorrean ezartzen dutenaren arabera, eta betiere hezkuntza-administrazioak onetsitako curriculum-egokitzapenetan ezarritako helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideen arabera egingo da.

Beraz, curriculum-egokitzapen nabaria duten alor edo irakasgai baten ebaluazioa egokitzapenean bertan zehaztutako irizpideen arabera egingo da eta berau gainditzeak egokitzapenaren curriculum-erreferentzia den ziklo edo ikasturtean alor edo irakasgai hori gainditzea esango du eta, behar denean, curriculum-egokitzapen nabarian garatutako curriculumaren zatia.

5.2. Mailaz igarotzea

Hezkuntza-premia bereziak izan eta Jarduteko planak curriculum-egokitzapen nabari globala edo alorrekoa ezartzen dion ikaslea maila igaro behar den erabakitzeke, curriculum-egokitzapenak ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera egingo da (2008ko uztailaren 7ko Aginduaren, Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duenaren, 20.9 artikulua). Horrek esan nahi du ez direla derrigorrez Lehen Hezkuntzan eta DBHn orokorrean ezarritako mailaz igarotzeko irizpideak jarraitu behar.

Lehen Hezkuntzako ziklo batean eta DBHko ikasturte batean urtebete gehiago igarotzeak, curriculum-egokitzapenei dagokienez, ikasle horrek jarraitu beharreko berriazko programaren izapide berriak egitea esan nahiko du. Beraz, ikasle horrek bigarren ikasturte horretan garatu beharreko jarduerak definitu eta zehaztuko dira.

5.3. Eskolatzeko-aldia aurreratzea eta malgutzea

Adimen-gaitasun handia izan eta hezkuntza-laguntzaren berriazko premiak dituzten ikasleek derrigorrezko eskolatzeko aurreratu edo eskolatzeko-aldi hori murriztu ahal izango dute.

5.4. Titulazioa

2/2006 Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, ezartzen duenaren arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean oinarrizko gaitasunak eta etaparen helburuak lortu dituzten ikasleek jasoko dute graduatu-titulua (31.1 artikulua).

118/1998 Dekretuak, ekainaren 23koak, ezartzen duenaren arabera, curriculum-egokitzapen guztien xedea izango da ikasleak curriculumean ezarritako gaitasun orokorrak eskuratzea, dituen aukeren arabera eta ahalik eta gehien integratuta dagokion taldean. Xede horiek lortzen dituzten ikasleek dagokien titulu akademikoa eskuratuko dute (8.4 artikulua).

Aurrekoa kontuan hartzen bada, funtsezkoa da aintzat hartzea alorreko edo irakasgaiko curriculumaren norbanako egokitzapen nabariaren helburua dela ikasleak etapako helburu orokorrak eskuratzea. Kontuan izan behar da curriculumeko irakasgai guztiek ez dutela era berean eragiten etapako helburu orokorretan eta DBHko oinarrizko gaitasunetan eta, beraz, kasu bakoitzean egokitzapena aplikatutako irakasgaia eta horren curriculum-aldea aztertuko da; hori etapa berekoa izango da betiere.

Beraz, titulazioari buruz erabakitzeke funtsezko irizpidea ikasleak etapako oinarrizko gaitasunak eta helburuak eskuratzeari buruz irakasleek egindako balorazioa izango da, ohiko curriculumean eta curriculum-egokitzapenekin egindako irakasgaietatik abiatuta. Ondorioz, DBHko 4. ikasturtean eskolatutako ikasleen curriculum-egokitzapenak azalduko dute, eta 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren V. Eranskinaren (ebaluazio-irizpideen) arauari jarraiki, etapako oinarrizko helburu eta gaitasunak eskuratu diren.

6.- CURRICULUM EGOKITZAPENAK ETA SALBUESPENAK DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDOREN

1467/2007 Errege Dekretuak, azaroaren 2koak, Batxilergoko antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituenak, hezkuntza-etapa honetan curriculum-egokitzapenak mugatu ditu: "Hezkuntza Administrazioek ezarriko dituzte hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak curriculumera sartzea errazteko baldintzak eta horien laguntza-baliabideak eta, behar denean, tresnak, epeak eta laguntzak egokituko dituzte ikasleak behar bezala ebaluatu ahal izateko".

Batxilergoan, hezkuntzako ohiko indartze-neurriak nahikoa ez badira, curriculum-egokitzapenak egingo dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, baita hainbat irakasgaitan curriculumaren norbanako egokitzapenak ere, helburu orokorrak mantenduz betiere. Salbuespenak egin ahalko dira, zati batean edo osotasunean, entzuteko, ikusteko edo mugitzeko arazo larriak dituzten ikasleen kasuan, behar bezala ziurtatutako ez-ohiko baldintzek hala aholkatzen dutenean. Curriculum-egokitzapen horiek eskolatzeko-denbora malgutu ahal izango dute. Horrenbestez, gehienez ere sei urte eman ahal izango dira Batxilergoko erregimen arruntan. (2010eko uztailaren 26ko Aginduaren, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen dituenaren, 11. artikulua).

Lanbide Heziketari dagokionez, 1538/2006 Errege Dekretuak, abenduaren 15ekoak, ezartzen duenaren arabera, lanbide-heziketako eskaintzek legea beteko dute aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsalari dagokienez. Horretarako, ikasleek irakaskuntza horietara iritsi eta bertan ikasteko bitarteko eta baliabideak eskuratuko dituzte. Horrez gain, ebaluazio-prozesuak ezgaitasuna duen ikaslearen metodologia-egokitzapenetara moldatuko dira eta ebaluazio-probak egiteko aukera bermatuko zaio ikasleari. Edonola ere, ebaluazioa egiterakoan, lanbide-modulu bakoitzeko helburuak eta ebaluazio-irizpideak eta heziketa-zikloaren helburu orokorrak hartuko dira kontuan. Titulua eskuratzeko beharrezkoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-modulu guztien ebaluazioa positiboa egitea.

6.1. Curriculumaren malgutasuna

Batxilergoan eskolatzeko-aldia malgutu ahal izango da eta atalka zatitu ahalko dira etapa honetako ikasturte bakoitzeko curriculumak osatzen dituzten irakasgaiak. Malgutasun hori derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etaparen edo etapa osatzen duten ikasturte bakoitzaren hasieran eskatu ahalko da. Horrenbestez, gehienez ere sei urte eman ahal izango dira Batxilergoko erregimen arruntan.

Heziketa Zikloetan, hezkuntza-premia bereziak izan eta eskolatzeko-aldia malgutzea behar duten ikasleen kasuan, irakasleek kasu horietarako legeak ezarritakoa beteko dute (32/2008 Dekretuaren, otsailaren 26koaren, Hezkuntza Sistemaren Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duenaren, 21. artikulua).

6.2.- Salbuespenak Batxilergoan eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan

Batxilergoko irakasgai batzuetan salbuespenak zati batean edo osotasunean egingo dira entzuteko, ikusteko edo mugitzeko ezgaitasuna duten ikasleen kasuan, behar bezala ziurtatutako ez-ohiko baldintzek hala aholkatzen dutenean betiere.

Salbuespena zati batean egiten bada, curriculumaren norbanako egokitzapenaren izaera izango du ebaluazio eta mailaz igarotzeari dagokienez.

Irakasgai baten salbuespena osotasunean egiten bada, salbuespena kalifikazioan ezarriko zaio eta ikaslearen espediente akademikoan hala adieraziko da. Beraz, dagokion irakasgai kalifikazioari dagokion laukian salbuespena (SAL) adierazpidea markatuko da eta espediente horri gehituko zaio salbuespen hori baimentzen duen Hezkuntza Berriztatze Zuzendariaren Ebazpena. Halaber, baldintza hori, termino berdinetan, historial akademikoan eta ebaluazio-aktan ere idatziz jasoko da.

Irakasgai batean salbuespena osotasunean egiten bada, irakasgai horren kalifikazio eza esan nahiko du, baina ikasleak pertsonalizatutako lan-plangintza baten laguntzaz egin ahalko du irakasgai hori. Akta, espediente eta historial akademikoan salbuespena terminoa erabiliko da (SAL). Ondorioz, ez ditu Unibertsitatera Sartzeko Probak egingo.

Heziketa Zikloen kasuan, salbuespena "ingeles tekniko" moduluan baino ez da egingo, entzuteko ezgaitasuna duten ikasleen kasuan.

6.5.- Mailaz igarotzea eta Titulazioa

Batxilergoan edo heziketa-zikloan mailaz igarotzea irakaskuntza horiek arautzen dituen araudi orokorraren arabera egingo da eta kontuan izango da, betiere, ikasle bakoitzari onartutako ez-ohiko neurriak.

Batxilergoa edo heziketa-zikloa irakasgairen batean salbuespenen bat aplikatuta ikasi duen ikaslearen kasuan, titulua lor dezake salbuespenaren xede ez diren irakasgai guztiak gainditzen dituen kasuan.

Batxilergoko batez besteko nota zehazteko ez dira salbuespenetako irakasgaiak kontuan hartuko.

Unibertsitatera sartzeko probetara aurkezten den ikaslearen ziurtagirian adieraziko da salbuespen-egoera.

Hezkuntza-premia bereziak izan eta irakasgai baten salbuespena duen ikaslearen kasuan, orientatzeko aholkua emango zaio eta horrek barne hartuko du ikaslearen etorkizuneko hezkuntza-ibilbidea gida dezakeen informazio esanguratsua.

6.6. Unibertsitatera Sartzeko Probak

1892/2008 Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, graduko unibertsitateko ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak arautzen ditu. 19. artikuluan ezartzen denaren arabera, ezgaitasunen bat duten ikasleek behar bezalako berdintasun-baldintzetan egingo dituzte sarrera-probak. Horretarako, hainbat neurri hartuko dira: epeak egokitzea, azterketen eredu bereziak egin eta ikasleei sarrera-probak egiteko behar dituzten bitarteko material eta giza baliabideak, arreta eta laguntza teknikoak eskaintzea, baita prozesuen eta probak egin behar diren leku edo espazio fisikoaren inguruko informazioa ematea ere.



7. IZAPIDEAK EGITEA.

Curriculumaren egokitzapen nabarien eta salbuespenen izapideak egiteko 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 17. artikulua eta Agindu honek ezarritakoa jarraituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 10a

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'M. Antonia Ozcáriz Rubio'.

María Antonia Ozcáriz Rubio
Hezkuntzako sailburuordea